

Donostian, 2019ko apirilaren 4a

60/19 PRENTSA OHARRA

GELTOKI ETA IBILBIDEEN ALDAKETA MARATOI ERDIA DELA ETA

Igandean, apirilaren 7an, ospatzen den Maratoi Erdia frogarengatik, goizeko 9:45ak eta 13:30ak bitartean, Erdialdeko, Gros eta Antiguoko kale batzuk moztu egingo dira.

7:20ETIK 9:45ERA GUTXI GORABEHERA

Irteera eta helmuga **Boulevardean** izango da, horregatik goizeko 6:30etik eta 14:00etara bitartean Boulevard moztuta geldituko da.

- 7:20etik 9:45era Amarako eta Antiguoko zerbitzuek Okendo kalean izango dute bukaerako geltokia.

- 7:20etik 9:45era 13-Altza lineak Boulevardeko geltokia mantenduko du.

- 7:20etik 9:45era 16, 18, 19 eta 37 lineen zerbitzuek Gipuzkoa Plazan mantenduko dute bukaerako geltokia.

- 7:20etik 9:45era 42-Aldapa-Egia lineak Okendo 3an izango du geltokia (5 linearen aurrean). Colón pasealekutik-Santa Katalina Zubitik joango da.

9:45ETIK 12:15ERA GUTXI GORABEHERA

Boulevardean gelditzen diren lineen bukaera geltokiak Santa Katalina Zubira (5, 9, 18, 21, 25, 26, 28 eta 42 lineak) eta Mirakruz kalera (8, 29, 13 eta 14 lineak) lekualdatuko dira.

Era berean, **10:00etatik 12:00etara Dbuseko autobusetan bidaiak dohainik izango dira (lasterketagatik eraginak izango dituzten lineetan bakarrik)**, probaren antolatzaileek bidaia horiek bere gain hartuko baitituzte.

Aldaketak honako hauek izango dira:

➤ **5. Benta-Berri, 25. Benta Berri-Añorga:**


Kontxa pasealekuko ibilbidea ibilgailu guztientzako itxita egongo da, garraio publikoa barne.

-**Antiguu alderantz:** Okendo, Boulevard, Zubieta 14 eta La Perlako geltokiak **Santa Katalina Zubira**, Bilbo plazara eta Urbieta 58-ra lekualdatuko dira. Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean dauden geltokiak Matia kalera, R. M. Azkuera eta Zarautz Hiribidera lekualdatuko dira.

-**Erdialderantz:** Ondarreta, San Martin 57 eta Artzain Ona geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira. Bizkaia P.-Mundaiz Zubira, Gernikako Arbolara, M^a Cristina Zubira lekualdatuko dira.

➤ **16.Igeldo:**

Igeldora joateko, Gipuzkoa Plaza eta Ondarreta zonaldearen artean ez da zerbitzurik



egongo. Sanserrekatik ezin izango da zirkulatu. Pio Barojara-tik joan-etorriak egiteko, erabiltzaileek Antiguora jaitsi beharko dute eta han 5. edo 18. lineak erabili beharko dute.

IGELDORA joateko, lotura zerbitzu bat egongo da Satrustegi Etorbidetik (geltokia Ezeiza Hotelaren parean).

➤ **18.Seminarioa:**

-Seminarioa alderantz: hasiera/bukaera geltokia **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da. Okendo, Gipuzkoa plaza, Zubieta eta La Perlako geltokiak Santa Katalina Zubira, Bilbo plazara eta Urbieta 58ra lekualdatuko dira.

-Erdialderantz: San Martin 57 eta Artzain Ona geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

➤ **19.Aiete-Bera Bera:**

Aldapetatik behera doazenean, bukaera geltokia **Urbieta 38an** egingo du. Artzain Ona, Okendo 11, Gipuzkoa Plaza, Urbieta 6 eta San Bartolome 10 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira, eta Easo kaleak San Bartolome kalearekin elkartzen den tokira eta Urbieta 38ra lekualdatuko dira.

➤ **23. Errondo-Puio, 32. Puio-Errondo:**

Easo 9 eta Urbieta 6 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira, eta **Urbieta 38ra** lekualdatuko dira.


➤ **31. Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza:**

-Aiete alderantz Intxaurrondotik: zerbitzu gabe geratuko dira Kursaal, Boulevard, Urbieta 6 eta San Bartolome 10 geltokiak. Colón pasealekura eta Easo kaleak San Bartolome kalearekin elkartzen den tokira lekualdatuko dira.

-Intxaurrondo alderantz: Artzain Ona eta Askatasunaren Hiribidea 3 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira. Geldialdiak egingo ditu ondorengo geltokietan: Urbieta 38, Bizkaia P.-Mundaiz Zubia, Gernikako Arbola, M^a Cristina Zubia eta Santa Katalina Zubia (behin-behineko zutoinean).

➤ **33. Larratxo-Intxaurrondo-Antiguo-Berio:**

-Igara alderantz: lehenik eta behin, autobusa ez da Beriotik pasako. Eta autobusa Igaratik bueltan datorrenean, orduan pasako da Beriotik. Zubieta 14, La Perla eta Askatasunaren Hiribidea 18 geltokiak Bilbo Plazara eta Urbieta 58ra lekualdatuko dira. Igara alderantz Berioko geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.



Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean dauden geltokiak Matia kalera, R. M. Azkuera eta Zarautz Hiribidera lekualdatuko dira.

-Erdialderantz-Intxaurrondo alderantz, Artzain Ona eta Askatasunaren Hiribidea 3 geltokiak Bizkaia P.-Mundaiz Zubira, Gernikako Arbolara, M^a Cristina Zubira Santa Katalina Zubira (behin- behineko zutoina) lekualdatuko dira.

➤ **35. Arriola-Ospitaleak:**

Arriola alderantz: Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean dauden geltokiak Matia kalera, R. M. Azkuera eta Zarautz Hiribidera lekualdatuko dira.

➤ **21. Mutualitateak-Anoeta, 26. Amara-Martutene, 28. Amara-Ospitaleak:**

Bukaera geltokia **Santa Katalina Zubian**. Antso Jakituna 11, Easo Plaza, San Martín 25, Okendo, Boulevard, Urbieta 6 eta Urbieta 12 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

➤ **8. Gros-Intxaurrondo, 29. Hego Intxaurrondo Sur:**

-Erdialderantz: Colón pasealekutik **Mirakruz kalera** joango dira bukaerako geltokia egiteko.

(8 linea): Intxaurrondo alderantz Mirakruz kaletik 31 linearen geltokiak eginez eta Jaialaitik, ohiko ibilbidearekin jarraituz. Boulevard, Askatasunaren Hiribidea, Iparragirre, Zurriola eta Nafarroa Hiribideko geltokiek ez dute zerbitzurik izango. Geltokiak Mirakruz kalean izango dira (31 linearen lekuan).

(29 linea): Kursaal, Boulevard eta Askatasunaren Hiribideko geltokiek ez dute zerbitzurik izango, bai, berriz, Colón pasealekuan.

➤ **9. Egia-Intxaurrondo:**

Erdialderantz: **Santa Katalina Zubian** bukaera geltokia izango du (behin-behineko zutoinean). Boulevard eta Askatasunaren Hiribideko geltokiek ez dute zerbitzurik izango.


➤ **13. Altza:**

-Erdialderantz:

8:00etatik 9:45era, Boulevarderaino ohiko ibilbidea egingo du.

9:45etik 12:30era: Nafarroa Hiribidea, Kursaal, Boulevard eta Askatasunaren Hiribideko geltokiak, Ategorrieta 41-era, Galtzada Nagusira eta Colón Pasealekura lekualdatuko dira, eta bukaera geltokia Mirakruz kalean izango du.

12:30etik 14:30etara: Ategorrieta Hiribidea, Galtzada Nagusia, Colón Pasealekua, Boulevardera iristeko Okendo kaletik. Nafarroa Hiribidea eta Kursaal geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.



-Altza alderantz, Boulevardera heltzen direnean, Legazpi kalera bira egingo dute eta zuzenean Askatasunaren Hiribidera aterako dira eta geldialdia Askatasunaren Hiribideko 7an (14 linea) izango dute.

➤ **14. Bidebieta:**

Erdialderantz, Colón Pasealekutik ezkererantz egingo dute **Mirakruz kalera**, bukaerako geldialdia egiteko. Gipuzkoa Plaza eta Askatasunaren Hiribideko geltokiek ez dute zerbitzurik izango.

➤ **17. Gros-Amara-Miramón:**

Gros alderantz, Iparragirre, Zurriola eta Nafarroa Hiribideko geltokiek ez dute zerbitzurik izango. Geltokiak **Mirakruz kalean** izango dira (29 linearen lekuan).

➤ **24. Altza-Gros-Antiguo:**

Antiguo alderantz, Nafarroako Hiribideko geltokiak zerbitzurik gabe geldituko dira. Geltokiak Ategorrieta 41-ean eta Galtzada Nagusian izango dira.

➤ **27. Altza-Intxaurren-Antiguo:**

Antiguo alderantz, Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean dauden geltokiak Matia kalera, R. M. Azkuera eta Zarautz Hiribidera lekualdatuko dira.

➤ **36. San Roke-Aldakonea:**

-Aldakonea alderantz: San Martin 25ean eta Santa Katalinako Zubian (behin-behineko postea) egingo ditu geldialdiak.

- Matia alderantz: Euskadi Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 20 geltokiak Bilbo Plazan egingo dira. Urbietan 6 eta Urbietan 38 Urbietan 58ra eta Arroka Plazara eramango dira.


➤ **37. Rodil-Zorroaga:**

-Zorroaga alderantz: Nafarroako Hiribidea, Kursaal, Gipuzkoa Plaza eta Askatasunaren Hiribideko geltokiak zerbitzurik gabe geldituko dira. Galtzada Nagusian eta Colón Pasealekuan geldialdiak izango dituzte.

-Rodil alderantz: San Martin 25ean eta Santa Katalinako Zubian (behin-behineko postea) egingo ditu geldialdiak.

➤ **41. Gros-Egia-Martutene:**

Gros alderantz, Iparragirre, Zurriola eta Nafarroa Hiribideko geltokiek ez dute zerbitzurik izango. Geltokiak **Mirakruz kalean** izango dira (29 linearen lekuan).



➤ **42. Aldapa-Egia:**

Erdialderantz: Santa Katalina Zubian izango du azken geldialdia (behin-behineko zutoinean).

➤ **45. Estaciones Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete:**

-Antiguo alderantz: Askatasunaren Hiribidea 18, Zubieta 14 eta La Perlako geltokiak lekualdatuko dira Santa Katalina Zubira (behin-behineko zutoina), Bilbo plazara eta Urbieta 58ra. Zumalakarregin eta Tolosa Hiribidean dauden geltokiak Matia kalera, R. M. Azkuera eta Zarautz Hiribidera lekualdatuko dira.

-Geltokiak alderantz: Ondarreta, San Martin 57 eta Artzain Ona geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira. Bizkaia P.-Mundaiz Zubira, Gernikako Arbolara, M^a Cristina Zubira lekualdatuko dira.

➤ **46. Morlans**

Askatasunaren Hiribidea 20 eta Urbieta 6 geltokiak Urbieta 38ra mugituko dira. Mundaiz Zubia, Gernikako Arbola eta Maria Kristina Zubia geltokiak kendu egingo dira.

12:15ETIK AURRERA GUTXI GORABEHERA

Lasterketa bukatzen denean, bukaerako geltokiak Okendo kalea-Gipuzkoa plazaren inguruan egingo dira.

- 5-25-21-26-28 lineek Okendo kaleko ohiko geltokietan egingo dute geldialdia.
- 8-9-29-42 lineek geldialdia Okendo 3an egingo dute.
- 16-18-19 lineek Gipuzkoa Plaza 2an geldialdia egingo dute.
- 31 lineak Gipuzkoa Plazan, 14 eta 37 lineen geltokian.

Era berean, **TAXIBUS ULIA zerbitzuan aldaketak egingo dira 9:45etik 12:30era gutxi gorabehera**. Iparragirre eta Groseko Anbulatoria geltokiak Pinudira lekualdatuko dira, eta Mariaren Bihotza geltokia Galtzada Nagusira lekualdatuko da.

Informazio gehiago www.dbus.eu webgunean eta 943000200 telefono zenbakian.

